Herri Aldizkaria

otamotz

2002ko ekaina 78. alea

GaztelekUra

IRITZIZ-IRITZI: JOXE MARI GABIRIA

ELKARRIZKETA: JOXEAN ALUSTIZA

IZERDI PATSETAN: REALAREN AZKEN FITXAKETAK

Garaialde Lizeoa

Labeaga 25, Urretxu

☎ 943 72 21 12

Bulego ordutegia: 9etatik 11ak arte

URRETXU ZUMARRAGA IKASTOLA

kilometroak 2002

elkarren beharrean

urretxu-zumarraga

BATXILERGOAK, D EREDUA

Natur eta Osasun Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

Lau ibilbide:

- -Zientifiko-Teknikoa
- -Osasun Zientziak
- -Giza Zientziak
- -Gizarte Zientziak

Zumarragako jaiak hasi direla eta, hona hemen duela hamarkada batzutako ezpatadantzariak.
Goialdean: Javier Bergerandi, Jesus Mari San Miguel, J.L. Mendia, Miguel Aranzadi eta Luis Alberdi.
Erdian: Joaquín Antia, Marcelino Aizpuru, Venancio Barrena eta Andoni Aranzadi.
Behealdean: Miguel Urteaga eta Ignacio Anduaga.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Aldiri K.E.-ren Kultur Astea

Maiatzeko azken astean Urretxuko Aldiri Kultur Elkartearen Kultur Astea izan zen. Astelehenetik ostiralera bitartean, hitzaldiak, diaporamak eta mahainguruak izan ziren. Larunbatean, berriz, Itoitzera irteerak aurtengo Kultur Asteari amaiera emango zion.

Aurtengo hitzaldietan, Idoia Agirre eta Julen Garralda herritarrek Guatemala eta Chiapasi buruz aritu ziren, Thamer Birawi palestinarrak bere herriari buruz hitz egin zuen, AHT-ren aurkako taldeko ordezkariek Abiadura Handiko Trenaz mintzatu ziren eta Asier Lertxundi mendizaleak "Eskalada Marokon" izenburua duen diaporama eskaini zuen.

Maiatzaren 31ko mahaingurua oso berezia izan zen. Bertan, atzerritik etorri diren hainbat euskaldunek beraien esperientzia pertsonala azaldu zuten. Mahaingurua Kontseiluko lehendakaria den Xabier Mendiguren ezkiotarrak gidatu zuen.

La Salleko Josu Pastrianentzat saria

Maiatzaren 31n, Sasieta Mankomunitateak urtero antolatzen duen birziklatutako gaiez egindako jostailu lehiaketaren sari banaketa izan zen Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan. Lehiaketa honetan, urtero bezala, Urola Garaiko hainbat ikastetxek parte hartu dute. Aurten, La Salle-Legazpi, Haztegi, Iparragirre eta Gainzuri ikastetxeetako ikasleek parte hartu dute, Goierriko 6 ikastetxetako ikasleekin batera. 10 ikastetxe hauetako ikasleek 50 jostailu aurkeztu zituzten lehiaketara.

Lehiaketara aurkeztu zituzten jostailu hauetako guztietako bat, Zumarragako La Salle-Legazpi ikastetxean DBH 2 ikasten ari den Josu Pastrianen tankea izan zen. Epaiamahaikideen ustez, Josuren jostailua DBHko ikasleek aurkeztutako onena izan da. Hori dela eta, Josu Pastrianek oroigarri bat jaso zuen. Horrez gain, Josuren lan onari esker, bere ikaskide guztiek iparraldera txangoa egin zuten.

Ferretería BRAVO, S.L.
INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIAK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



Merkatarien I. Astea

Bi-Tarteanek, Urretxu-Zumarragako Merkatari Elkarteak, Merkatarien I Astea antolatu du hil honetan. Ekainaren 10etik 14ra bitartean, hainbat hitzaldi, antzerki saioa eta merkatarien afaria izan dira. Afari honetan, Urretxu eta Zumarragako denda zaharrenak omendu zituzten: Candido harategia (1939) eta Urdangarin burdindegia (1876).

Bestalde, hilaren 10ean, joan den mende erdialdean herriko dendak nolakoak ziren azaltzen zuen erakusketa arrakastatsua zabaldu zen Zumarragako Soraluze kalean. Ekainaren 23a bitartean zabalik izan den erakusketa honetan, Urretxu eta Zumarragako argazki zaharrak, botilak, kartelak, liburuak, erremintak... izan dira ikusgai.

Iñaki Fidalgok, Bi-Tarteaneko lehendakariak, azaldu digunez, Merkatarien I Astea oso arrakastatsua izan da eta datorren urtean ere antolatzeko asmoa dute.

Itsaskia Aldirira joan zen

Aldiriko lagunek irabazi zuten maiatzeko itsaski zozketa. Ekaineko lehen ostiralean itsaskia jaso eta biharamunean bazkari ederra egin zuten presoen senideekin batera.

MASTER HEZKOR
Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!
Prezio eta modeloetan aukera aparta
Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU
OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA

GUREA
Iturgintza
Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...
Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Bertsolari gazteentzat sariak

Ekainaren 7an Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko XV. Bertso-paper Lehiaketako sari banaketa izan zen Pagoeta antzokian. Aurtengo lehiaketa bi mailatan banatua egon da. A mailan lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako gazteek parte hartu dute eta B mailan, berriz, DBH 1 eta 2ko ikasleek.

Sari banaketan Urretxu eta Zumarragako alkateak, Pello Gonzalez eta Aitor Gabilondo, eta Jon Aldama Urretxuko Kultur zinegotzia izan ziren. Hauekin batera, saituak etengabe txalotu zituzten Urretxu eta Zumarragako ikasle ugari ere izan zen.

A mailan, hirugarren saria Xabier Estonbak jaso zuen, bigarren saria Idoia Mendiak eta lehen saria eta txapela Manex Mantxolak. B mailan, berriz, hirugarren saria Amaia Arrospiderentzat izan zen, bigarren saria Amaia Plazaolarentzat eta lehen saria Irati Auzmendirentzat. Epaimahaiaren sari berezia, duela hiru urte Marokotik Euskal Herrira bizitzera etorri zen Abderraman Kaim-entzat izan zen.

Goierri Kirol Elkartearen urteurrena

Guztiek dakizuen bezala, Goierri Kirol Elkartea bere 50. urteurrena ospatzen ari da aurten. Urte hasieraz geroztik hainbat ospakizun izan dituzte Goierrikoek, baina urteurrena ospatzeko antolatu dituzten ekitaldi nagusiak ekainean izan dira. Ekainaren 15ean, esaterako, 3X3 saskibaloi txapelketako kanporaketak eta gastronomi lehiaketa izan ziren. Joan zen asteburuan, berriz, sail ezberdinen erakustaldiak eta bazkari herrikoia izan ziren. Zorionak Goierri!

BILINTX
LIBURUDENDA
EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.
-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224
Fax: 422363 20003 DONOSTIA
-Fermín Calbetón, 30
Telf. 422696 20003 DONOSTIA
-República Argentina, 4 Telf. 626817
Fax: 626817 20300 IRUN
-Arostegieta, z/g. Telf. 673533
Fax:673500 20400 TOLOSA
-Ibargarai, 12 Telf. 764050
Fax: 764050 20570 BERGARA



Ekainean ere Kilometroak 2002ren inguruko ekitaldi ugari

Azken hilabeteotako ildoari jarraituz, Kilometroak 2002ren inguruko ekitaldi ugari izan ditugu ekainean ere. Ekainaren 7an, Gipuzkoako bertsolari gaztetxo onenek Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala jokatu zuten Zumarragako Beloki pilotalekuan.

Biharamunean, Umeen Eguna ospatu zen. 0 eta 6 urte bitarteko haurrek marrazki tailerra, Iker Antia ipuin kontalariaren saioa, puzgarriak eta Kukubiltxoren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek, berriz, jokoak, bazkaria eta play-back saioa izan zituzten.

Hurrengo astean, hilaren 15ean, Oroimenari Kantari kantaldia izan zen Ederrena pilotalekuan. Bertan, ikusle ugari bildu ziren herriko abeslari ezberdinek eskaini zuten saioaz eta Kilometroak 2002ko kantaren aurkezpenaz gozatzeko asmoz.

Kilometroak 2002ko kantaren doinua Estitxu Sudupe urretxuarrak sortu du. Hitza, berriz, Estitxuk berak eta Arantxa Gabiriak idatzi dute. Mendiaraz Anaiek txalapartaren soinuaz aberastu dute uda honetan sarritan entzuteko aukera izango dugun abesti martxoso hau.

Zumarragako jaietan ere hainbat kultur ekitaldi izango dira, Kilometroak 2002ko antolatzaileen eskutik. Izan ere, Ikastolak txosna eta eskenatokia jarri behar ditu Areizaga-Kalebarren enparantzan eta egunero ikuskizunen bat izango da bertan.

Ostiralean, "Bertsoak, hitza, musika eta txalaparta" izenburua duen saioa izango da gaueko 10etan. Bertan, Ostebi taldeak, bertso eskolako bertsolariek eta txalapartariek parte hartuko dute.

Larunbatean, gaueko 10:30etan, Jose Luis Padrón poetak eta beste zenbait idazlek, Asier Larrazak eta Fits taldeak "Hitza, musika eta irudiak" ikuskizuna eskainiko dute.

Igandean, eguerdiko 1etan herriko trikitilarien saioa izango da eta gaueko 10etan Gorka Hermosaren folk musika emanaldia. Astelehenean ere, eguerdiko 1etan, trikitilariek Areizaga-Kalebarren enparantza girotuko dute. Arratsaldeko 8etan, berriz, Axeri taldeko kideek umorezko antzerki saioa eskainiko dute.

Kilometroak 2002ko antolatzaileek ez dute ikuskizunik antolatu Santa Isabel egunerako, baina Antion txosna ipiniko dute eta bertan nahi adina janari eta edari izango da.

RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎725682 ☎722292

MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Joxe Mari Gabiria

"Eman da zabal zazu munduan frutua..."

"Zer familia izandu degun, jauna, nahi al du aditu? Hamabi haurren aita naiz ni ta semeak hamar baditu. Lan egiteko inor gutxi ta mahaian ezin kabitu. Baneukake nun enpleatua, bost mila duro banitu" (Txirrita).

Orain berrogei-berrogeita hamar urtera arte, gure inguru hauetan, ze familia geratzen zen bost-sei seme-alaba hazi gabe? Zazpi-zortzikoak ikustea ez zen harritzekoa. Eta tarteka baziren hamar-hamaikakoak ere.

Hiru ahizpa zein baino zein

Hamaika gutxitxo iritzita-edo, hamabost hankagorri ekarri zituen mundura oraindik-orain zendu zen Euxebi Aiastuik, Mendizabal baserriko amona jator eta umoretsuak. Berari entzun nion "ginekologo" hitza zahartuta gero ikasi zuela; halakorengana joateko premiarik izan ez zuen seinale.

Odoletik zetorkion, nonbait, Euxebiri hain ugalkorra izatea. Beste bi ahizpa ere izan baitzituen ume mordo baten ama izan zirenak. Hogeita hamazortzi seme-alaba erditu eta hazi zituzten hiruren artean. Hamabost Euxebik, hamairu Ipeñarrietako Martzelinak, eta hamar Beidakarreko Anjelak.

Urte sasoi honetantsu jaio izango zen Euxebiren umeetako bat; belarrak ebaki, ondu eta mandioan sartzeko garaia omen zen, behintzat.

Beste askotan bezala haurdun zegoen, orduan ere, Euxebi; oso aurreratuta, gainera; hala ere, lana egiteari nola utzi...! Garai hartako emakume baserritarrarentzat luxua izango zen.

Sardean belar mordoa hartu eta gurdira botatzeko keinua egin duenean mina sentitu du sabelean. Esan dio senarrari ez dagoela ondo eta etxera doala. Senarrak, gurdi gainetik, ea laguntzerik nahi al duen. Euxebik ezetz. Senarrak, orduan, joateko etxera, sartzeko ohean eta egoteko lasai, hango lanak berak bukatuko dituela, eta berehala izango dela bera ere etxean.

Esan eta egin. Mendizabalgo nagusia, gurdikada belar bete eta abiatu da baserrirantz. "Aida, Gorri... Mogituko al haiz, Txordo...?" Ordu t'erdi ez da oraindik Euxebik zelaitik ondoezik aldegin duenetik. Hain tarte txikian, ordea, nobedadeak izan dira Mendizabalen. Hiru kilo t'erdiko mutikoa. Ama-semeak primeran daude. Aita, harro baino harroago, "andrea berriz ondo jarritakoan, San Juani bederatziurrena egin beharko diogu, aurten ere, eskerrak emateko".

Berrogeita hamar urte eta gero, hau

Familiaren baitan a zer aldaketa egin duen gure gizarteak mende erdi batean! "Lan egiteko inor gutxi ta mahaian ezin kabitu". Hala zihoen Txirritak "Nagusia eta Maizterra" izeneko bertso sailean. Alegia, etxea bete jende bai, baina ume jendea; jateko beti pronto, lana egiteko gauza ez, ordea.

Euskal Autonomi Erkidegoan dago, gaur egun, Europako ugalkortasun-tasa apalena: emakume bakoitzeko 0,96 haur jaiotzen da. Nafarroan, 1,19. Ipar Euskal Herriko emakume bakoitzak, berriz, bi seme-alaba sortzen ditu batez beste.

Belaunaldiaren ordezkapena ziurtatzeko, beharrezko jaiotza-tasaren indizea 2,1ekoa da herrialde garatuetan. Demografoek diotenez, gaur egungo jaiotze-tasen arabera, Euskal Herriko populazioa erdira jaitsiko litzateke hogeita hamar urteren buruan.

Lana eta haurrak elkarren aurkako?

Zenbaiten ustez emakumea lan merkatura hurbiltzearen ondorio zuzena da jaiotzak urritu izana. Iraganeko feminismoaren diskurtsoak ere izan zezakeen zerikusirik: "Emakumeak lana egin behar du", "Lana bai, umerik ez", "Lanak errealizatzen du emakumea eta umeak izateak ez" zioten feministek orain urte asko ez dela.

Gaur egun, jarrera feministak defenditzea eta sustatzea sekula baino hobeto ikusita dagoen arren, jaiotza-tasaren inguruko jarrerak eta iritziak aldatu egin dira. Aurreko belaunaldiaren borroka, haurrak ez izatera zuzendua izan zen nolabait. Belaunaldi berriek haurrak izateko borrokatzen dute. Baina borroka hori ez daiteke inola ere haurrak izan nahi dituen bikotearen (edo emakumearen) borroka bakartia izan. Haurrak gizartearen ondasun badira, gizarteak berak lagundu egin beharko lioke erabaki hori hartzen duenari. Diruz lagundu, noski. Errepideak egiten sekulako dirutzak erabiltzen ditugu urtero Euskal Herrian. Eta zergatik ez, haurtzaindegi gehiago, merkeagoak eta ordutegi zabalagodunak jartzen?, amatasun lizentziak luzatzen?, zergatik ez eman, haur bakoitzeko hilean hainbesteko diru-laguntza? zergatik ez...?

Jaiotza-tasaren urritasunari aurre egingo bazaio derrigorrezkoa da arazoari adarretatik heldu eta inbertsioak egitea. Nik ez dut sinisten emakumearen lan-jarduera eta amatasuna gaur egun baino egokiago uztartu ezin daitezkeenik. Horra hor herrialde eskandinaviarren eredua. Beraiek ikasi dute lana eta familia bateratzen. Europako jaiotza-tasarik handiena dute bertan, baina aldi berean emakumeen lan jarduera-tasa handiena ere bai. Esperientziak erakutsi die haiei zahartzaroan erretiro-saria jaso nahi bada, langile gazteek etorri behar dutela atzetik.

Garai batean, etorkin atzerritarrek bete izan zituzten bertakoekin bete ezin ziren lanpostuak. Hartara ezkero, guk ere bide bera jarrai genezake. Milako etorrik lirateke hartarako aukerarik txikiena emango balitzaie. Gure jubilazio pentsioa ziurtatuko ligukete, herri honen ekonomiari aberastasuna emango liokete. Baina herri honek, bertakorik sortu ezean, noiz arte jarraituko luke Euskal Herri izaten?

Futbol mundiala jarraitzen al duzu? Zein taldek irabaziko duela uste duzu ?

(Final zortzirenak jokatu aurretik egindako inkesta)

Asier Intxausti

Zertxobait jarraitzen ari naiz, bai. Sorpresa handiak egon dira eta, nire ustez, hori futbolarentzat onuragarria da. Beste kontinenteetan futbolarien maila igotzen ari da. Nire ustez Alemaniak irabaziko du.



Urtzi Lizarralde

Sorpresa handiak egon dira eta horrek asko pozten nau. Senegal oso gustukoa dut, baina Italiak irabaziko duela uste dut.

Oihane Zabaleta

Munduko Kopa ez zait batere interesatzen. Urte osoan futbola jasaten ari gara eta, orain, deboraldia bukatu denean, Mundiala! Nire ustez kirol guztiei garrantzi bera eman beharko litzaieke.



Igor Caballero

Munduko Kopa jarraitzen ari naiz eta sorpresa harrigarriak egon dira. Dena den, nahiko izorratzen nau partida gehiago ikusteko aukera ez izateak. Nire ustez txapelketa Brasilek irabaziko du.



Mikel Calderon

Mundiala jarraitzen ari naiz. Sorpresa handiak egon dira. Nire ustez irabazleak Espainia edo Danimarka izango dira.



Idoia, Nahia eta Dorleta

Ez gara Munduko Kopa batere jarraitzen ari, telebista eta irratiko albistegietan esaten dutena besterik ez. Komunikabideetan etengabe Mundialaz hitz egiten aritzea ez zaigu asko axola, katez aldatu eta kitto!

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Lau urte eta gero...

Zumarraga Urretxuko Gazte Asanbladako gazteek ia lau urte luze eman dituzte GazteleKU berriaren egoitza izan behar zuen Urretxuko Urolako geltoki zaharra egokitzen. Urte hauetan guztietan teilatua konpondu dute, goiko solairuan bi egongela prestatu dituzte eta etxeazpian taberna, eskenatokia, mahaiak, komuna eta futbolin zaharra jarri dituzte. Joan zen asteburuan, GazteleKU berriaren inaugurazioan, herritar askoren bilgunea izango den egoitza berria ezagutzeko aukera izan genuen. Astebete lehenago, GazteleKUaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren adierazle diren hainbat herritarrek hitzaldia eskaini zuten Pagoeta antzokian. Bertan, Joxe Jauregi, Igor Urrestarazu, Joxi Etxeberria, Gaizka Arakama, Cesar Mendez, "Atxun" Kerejeta eta Oier Agirre GazteleKU zaharraz, berrian egindako lanez eta honen funtzionamenduaz mintzatu ziren.

Joxe Jauregi beteranoak GazteleKU zaharra nola jaio zen azaldu zien Pagoeta antzokian bildu ziren gazteei. Hauetako batzuk, seguraski, sekula hura zapaldu gabeak izango dira. Joxek azaldu zuenez, "Goierri K.E. egungo egoitzara joan zenean, gazte talde batek lokal zaharra gazte bilgune bihurtu genuen. Bertan, zentral nuklearrei, drogari... buruzko hitzaldiak egiten genituen. Lokala zein egoeratan zegoen ikusita, Urretxuko Udaletxera joan ginen berritzeko laguntza lortzeko asmoz. Egun auzolanean berritu bada ere, garai hartan berrikuntza gremioek egin zuten batik bat".

GazteleKUa berritu ondoren, garai hartako gazteek beste ekimen batzuei heldu zieten: txaranga osatu zuten; kontzertuak, mahai jokuen txapelketak, kirol txapelketak... antolatu zituzten... Urte haietan gazte asanblada izena erabiltzen ez bazen ere, orduan ere GazteleKUaren funtzionamendua asanblearioa zen. "Dena den, Udalak, diru laguntzaren trukean, *junta rectora* kargua hartu zuen eta gazteok *junta directivoa* osatzen genuen. Udalak gazteen tutoritza egiten zuen: gure ideiak izaten ziren gehienbat aurrera ateratzen zirenak, baina Udalak argi uzten zuen bertan zegoela. Urteen poderioz, junta *rectora* hori desagertu egin zen".

80ko hamarkadan gazte mugimenduak sekulako indarra eta zeresana izan zuen Euskal Herrian, baina drogen ondorio kaltegarriak ere pairatu behar izan zituen. Herri hauei eskaintzeko asko zuten urretxuar eta zumarragar gazte asko ere drogaren sareetan erori ziren. GazteleKUa gazte guztien bilgunea zen, baina, 90 hamar-

GazteleKUa bizirik!

kada hasierarako, herritar askok drogazaleen bilgune bezala ikusten zuten.

Gazte Asanbladak Juanito Arbizuk 1980an sinatutako agiriari esker lortu zuen geltokia

Hori dela eta, Joxi Etxeberriak eta garai hartan barraren ardura zuten gainontzekoek, bilera batera deitu zituzten bi herrietako gazteak. "Bilera hartara gazte asko joan ginen eta hainbat gauza argi ikusi genituen: GazteleKUaren funtzionamendua *bajo minimos* zegoela, horren arrazoietako bat droga zela eta GazteleKUa herri guztiari zabaldu beharra zegoela. Bilera hari esker, jende ezberdina GazteleKUa dinamizatzeko lanean jartzea lortu zen. Herriko beste elkarte batzuei deialdia luzatu genien (Goierri, Ostadar, Hits&Fits, UZTA...) eta guztiok gure ekarpena eskaini genuen".

Bestalde, bilera hartan Gazte Asanblada sortu beharra zegoela ere ikusi zen. Igor Urrestarazu bere sorreraz geroztik ZUGAko kidea da. "Estatutuak egin genituen eta Foru Aldundian izena eman genuen. GazteleKUaren diru iturri nagusia barra zen. Barran lan egiteko jendeak bere burua aurkeztea eta, ondoren, bozketa bidez, aukeraketa egitea erabaki genuen. Barrakoei soldata ematen zitzaien eta gainontzeko diruarekin gastuak ordaindu eta ekintzak antolatzen genituen. Nire ustez jendeak argi ikusi du GazteleKUa bota zenetik gazteentzat ekitaldi gutxi antolatu direla. Argi izan behar dugu gazteok zer edo zer nahi badugu GazteleKUa eta Gazte Asanblada bultzatu behar ditugula".

Gazte Asanblada sortzerako, gazteek bazekiten GazteleKU zaharra bota behar zutela. Hori dela eta, Urretxuko Udaletxera joan ziren argibide eske. Udalak Ederrena atzealdeko lokala eskaini zien, baina gazteek Urolako geltokia nahi zuten. GazteleKU zaharra bota baino hilabete lehenago, gazteek oraindik ez zekiten egoitza berria zein izango zen. "Bota aurreko azken hilabetea oso gogorra izan zen. Udalak geltokia eskainiko zigula esaten zigun, baina ez ginen fido. Halako batean Juanito Arbizuk 1980an sinatutako agiria azaldu zen: honen arabera, Udalak GazteleKU zaharra 25 urterako uzten zigun eta, hura kentzekotan, antzeko egoitza edo hobea eskaintzera konprometitzen zen. Agiri honi esker, alkateak Urolako geltokia ematen zigula sinatzea lortu genuen"

Hortik aurrera, gazteek Urolako geltokia txukuntzeari ekin zioten. "Bi aukera genituen: konponketa Udalaren esku utzi edo guk geuk egitea. Auzolanean egitea erabaki genuen eta kostata izan bada ere, azkenean bukatu dugu".

Oier Agirrek, lanean aritu diren gainontzeko gazteek bezala, ederki asko daki zenbat izerdi bota duten azken lau urteetan. "Bere lankidetza eskaini duten guztiei eskerrak eman behar dizkiegu. Obra kontu hauetaz ezer gutxi genekien arren, lan ona egin dugula uste dut. Lokal hau hurrengo 50 urteetan gazteentzat izatea lortu dugu eta ez dut uste denbora horretan behintzat eroriko denik. Izan ere, 8 tona inguru zementu eta 12 tona hare inguru erabili ditugu, eraikinaren estetika errespetatu dugu, intsonorizatu egin dugu, leiho onak jarri ditugu...". Orain, kanpoaldean, goiko pisura eramango duten eskilarak eta igogailua egitea falta da.

Barrualdeari dagokionez, goiko solairuan bi egongela egokitu dira. Beheko solairuan, berriz, taberna, eszenatokia, mahaiak eta futbolina jarri dituzte. Sarreran aipatu bezala, joan den asteburuaz geroztik, beheko solairua herritar guztientzat zabalik da.

Zabaldu aurretik, Gazte Asanbladak GazteleKUaren funtzionamendua zein izango den zehaztu zuen. Gaizka Arakamak hitzaldian azaldu zuenez, "beheko solairua ez dugu taberna soil bezala ikusten. Bertan, talde eta pertsona ezberdinek proposatutako ekintzak aurrera atera behar dira. GazteleKUa gazteen eta ez hain gazteen aisialdirako aukerak eskaini behar dituen gunea izan behar du. Lehen bezala, belaunaldi ezberdinen elkargunea izatea nahi dugu. Gazteek sortu eta gestionatutako lokala da, baina herriko jende guztiari begira egongo dena eta guztien ekarpenekin aberastuko dena. Bilerak larunbatetan 12etan egiten ditugu".

Gazte Asanbladakoek beheko solairuan ikuskizun ezberdinak antolatzeko asmoa dute: antzerki emanaldiak, kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak, ikastaroak, bideo emanaldiak... Barrari dagokionez, lehen sei hilabeteetan, Jokin Lasa, Julen Badiola, Oier Agirre eta Gaizka Arakama bera izango dira tabernariak. Urtarrilean Gazte Asanbladako bazkideek tabernan lan egiteko aurkeztuko direnen artean hautaketa egiteko bozketak izango dituzte. Lehen bezala, GazteleKUko salneurriak tabernetakoak baino merkexeagoak dira.



Goiko solairuan, aipatu bezala, bi egongela egokitu dituzte. Batean bi ordenagailu jarriko dira. Hauetako bat Gazte Asanbladak erabiliko du eta, bestea, nahi duten herritar guztien esku izango da. Beste gelan liburutegia eta egongela egongo dira. Bertan, Gazte Asanbladak zine emanaldiak eskaintzeko asmoa ere badu. Gela hau bertan bildu nahi duten talde ezberdinen esku ere egongo da.

Izan ere, Gazte Asanbladak, GazteleKUaren bidez, beste talde batzuei laguntzeko asmoa ere badu. "Lokala behar duen edonoren zerbitzura egongo da. Esate baterako, Udalak eskalada taldeari sekula laguntza handirik eskaini ez dionez, San Martin aldera ematen duen paretan rokodromoa jartzea aztertzen ari gara".

Joxean Alustiza: "Bigarren mailako eskualdea izango garen susmoa dut"



Arrasaten kooperatibista izateaz gain, Joxean Alustiza zumarratarra Batasunaren ordezkaria da Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta aurreko legealdian Zumarragako udaleko HBko zinegotzia izan zen. Estatu espainiarrak ezker abertzalea deuseztu asmotan dabilen honetan, ordezkari aproposa iruditu zaigu gai honetaz zehazki eta herriko gainontzeko gaiez duen iritzia jakiteko.

-Zer iritzi duzu eratu den gestoraz?

Hutsik zeuden postu batzuk betetzeko balio izan du eta hori egokia da. Dena den, gauzak era askoz egokiagoan egin zitezkeela iruditzen zait, horrenbeste iskanbilarik atera gabe. Horenbesteko beharra bazegoen, ez dakit nola alkateak ez zuen askoz lehenago hartu Diputazioarekin negoziatzeko ardura, kanpoko politikoen presioa jasan arte itxaron gabe. Hainbat alderdik kanpoko jendea aukeratu dute zinegotzi karguak betetzeko eta ez dut uste jende hori Zumarragari gauza handiegirik eskeintzeko moduan dagoenik. Gehiago izan da Euskal Herriak bizi duen joku mediatiko eta politikoaren beste mugimendu bat.

-Zergatik pasa da Zumarraga diana informatiboaren erdira?

ETAk Manuel Indiano hil zuen eta denok hunkitu gintuen gertakizun trajikoak eragin handia izan du Udaleko erlazio politikoen bilakaeran. Hala ere, hortik aurrera kanpoko hainbat politikari profesionalek izan duten jarrera guztiz lotsagarria eta salagarria izan da. Gezur gehiegi esan dituzte Zumarraga eta hainbat zumarratarri buruz, helburu maltzurrekin eta enfrentamendu bila. Hala ere, zorionez, ez dut uste azken hamar urte hauetan Zumarragako egoera eguneroko bizimoduan ezer asko aldatu denik. Giza harremanak onak direla iruditzen zait eta ez dut uste herritarren artean ezin egonik edo kalera irteteko beldurrik dagoenik.

FAMILIA BABES ASEGURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.
-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEGURUA.
-ISTRIPU ASEGURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina
20600 EIBAR
☎ 943 20 24 70

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

-Zergatik eman da hau?

Hedabide handientzako oso erraza izan da hona etorri eta nahi izan duten guztia esatea. Ez dut uste Aitor Gabilondok behar bezalako nortasuna azaldu duenik. Berari zegokion gure herriaren aurka bota diren astakeriak zuzentzea eta hor ez da inondik inora azaldu. Ez du neurria eman. Adibidez, giza-eskubideen aldeko defentsan beti berdinen alde atera da. Plenoetatik jendea botatzerakoan ez du neurri berdina erabiltzen; EHko zinegotziak heriotz mehatxu gogorra jasan izan dutenean isildu egin da; edo nola ahaztu Zumarragako EA-PNVren jokaera Urretxu-Zumarragako 7 bizilagun atxilotu eta beraien egoeraren aldeko mozioa errefusatu zuenean. Etorkizunean gauzak hobera joango diren itxaropena mantentzen dut, denok horren beharra baitugu.

-Herrian kontrolak eta errepresioa ere handitu egin dela dirudi.

Baina hori ere ez da gauza berria. Jende asko gaude herrian isun handiak ordaindu behar izan ditugunak, azkenean kontuak enbargatu baitizkigute eta diru kopuru handiak ordaindu ditugu, zergatik eta kalean pankarta batekin egoteagatik.

-Udalean ez zabiltzan arren, zeintzuk dira herriaren beharrik handienak?

Ez dut jarraipen zuzenik egin, baina beldur naiz inguruko eskualdeekin konparatuta ez ote garen atzean gelditzen ari. Bai azpiegitura aldetik bai industria aldetik beraiek asko garatu dira eta gu ia batere ez. Inguru hauetan industria berriak sortzen eta zaharrak garatzen ari dira (ikerkuntza zentroak, inbertsio garrantzitsuak produktu estrategikoetan, etab.) eta hemen ez dut halakorik somatzen. Gainera hor daukagu Irimoren adibidea. Urretxuko enpresarik handiena da eta kalean dauden zurrumuruen arabera, hemendik urte gutxira hemengoa itxi eta lantegiak Irun eta Gasteizera eramango omen dituzte. Multinazional estatubatuar baten menpe daude.

Eta hori zergatik?

Industria erakarri, sendotu eta sustraitzeko hainbat kontaktu, ideia eta plan garatu behar dira eta hemen ez da horrelakorik lortu. Eskualdean izan dugun garapen industrial historikoa, politika eraginkorren falta, beti epe motzean lan egiteak eragiten duen ikuspegi estrategikoaren falta. Bigarren mailako eskualdea bihurtuko garen susmoa dut.

-Beasain-Durango errepidearena zuen aspaldiko erreibindikazioa da, nola daude gauzak?

Maketa eta mapa polit batzuk ekarri zituzten hona erakusgai eta jendea oso pozik eta txaloka, baina benetan gertatzen dena ez zaie komentatzen. Ormaiztegitik Zumarragarako tramoaren lanek hamabost hilabeteetan urtebeteko atzerapena izan dute, horretarako arrazoirik izan gabe. Bergararako bidea 2004 urterako egina behar zuen eta orain badirudi asmoa 2009rako bukatzea dela. Lau karril beharrezkoak ikusten ditugun guneetan bi eraikiko dira, gero agian bigarren epe batean lau egiteko. Hau guztia salagarriagoa iruditzen zait, bi udaletxeetan eta Batzar Nagusietan agintean daudenak alderdi berekoak izanda.

-Argixaoko elizaren auzia zertan da?

Anton Arbulu alkate zela, PSOE-PNV-PPk hainbat hitzarmen onartu zituzten Eliza Katolikoari operazio urbanistiko desberdinetan hainbat zerga barkatzeko, "El Salvador"-eko eliza egiteko. Gure ustez eliza bat baino behar handiagoak badira auzo horretan eta Zumarragan. Guztiz onartezina suertatu zena hitzarmen hauen edukia izan zen, hainbat lege hausten zituzten irregulartasunez beteak. Gainera, eliza eraikitzen ari den lurra publiko motatakoa zen eta araudi guztiak gainetik pasatu ondoren erakunde pribatu bati oparitu zitzaion. Hainbat errekurtso jarri genituen eta orain, eraikitze lanak aurrera doazen arren, hainbat erabaki judizialek guri arrazoia ematen digute. Dena dela, Udalak, erabaki hauen aurrean, lanak gelditu beharrean guztiak errekurritu ditu eta Auzitegi gorenera jo du. Ziurrenik borroka hau bertan behera uzteko erabakia hartu beharko dugu. Dagoeneko gure alderdiak milioi bat pezetatik gora gastatu du bide judizial korapilotsu honetan eta gaur egun ez daukagu baliabiderik aurrera egiteko. Erabaki guztiak gure aldekoak izan arren, ez dugu Udal oso baten aurka aritzeko gaitasunik eta ziurrenik amore eman beharko dugu. Garbi esan dezakegu dirua arrazoiari gailendu zaiola.

-Zer diozu gaztetxea berriro zabaltzeaz?

Gizartea gero eta indibidualistagoa eta gero eta materialistagoa da baina, zementuzko gizarte honetan loretxoak ere jaiotzen dira. Lau urte kosta bada ere, herriko gazteen lanari eta borondateari esker etxe oso bat berritu dute. Alde honetatik zorionik beroenak eman behar zaizkie.

Batasunaren ilegalizazioa

-Nola bizi duzue ilegalizazioaren mehatxu hori?

Estatu espainiarra Euskal Herriaren aurka burutzen ari den eraso masiboaren beste urrats bat dela iruditzen zait. Gainera nahiko argi geratzen ari da ez doazela soilik ezker abertzaleren aurka. Euskaldun kutsua duen ororen aurka doaz eta hori argi ikusten da Rajoyk euskal irakaskuntzaren aurka egin dituen adierazpenak entzunda. Orain gure aurka datoz, baina jakin dezala mundu guztiak hau haruntzago doala, euskal kutsua duen guztiaren aurka egingo dute suntsitu arte.

-Noizko izan daitekeen arrastorik?

Ez dago ezer jakiterik. Gobernuak nahi bezala egiten ditu gauzak eta alferrik dira epaileak, legeak, araudiak.. nahi dutena egiten dute nahi dutenean. Dena dela, oso posibletzat ikusten dugu ilegalizazioa aurten bertan egitea, udazken inguruan edo.

-Pertsonalki gerta daitekenaren aurrean beldurrik bai?

Hori bakoitzaren araberakoa da hor faktore askok hartzen du parte, egoera familiarrak, izaerak... Dena dela, ezker abertzaleak erakutsi du historikoki kolpe gogorrenak jasotzeko eta aurre egiteko gai dela, beraz, itxaropentsu aurkitzen naiz. Argi ikusten dugu eraikuntza nazionalerako hartu dugun bidea ona dela eta eraginkorra eta min egin diela eta horregatik hartu dituzte halako neurriak.

-Nolakoa izan da ilegalizazioaren aurka beste alderdien erantzuna?

Epela, horixe iruditzen zait adjetiborik egokiena. Eta ez dugu urrutira joan beharrik PP eta PSOEren jarrera aztertzera. Hemen gertuago PNV eta EAren jarrera ere oso argia izan da. Urretxun bertan dugu adibiderik argiena, Joseba Garmendiaren atxiloketarekin. Ideiak giltzaperatu dituzte eta eta Urretxuko udaletxean agintean daudenen erantzuna ere denok ikusi dugu nolakoa izan zen.

-PNVk udal-hauteskundeetan emaitza hobeak aterako lituzkeela ere komentatzen da eta hori izan liteke horren atzean dagoen arrazoietako bat?

Baina hori oso epe motzera egindako analisia litzateke. Gauzak dauden bezala hemendik urte betera emaitza hobeak lortuko lituzkete agian baina nork bermatzen die hemendik bost urtetara ez direla beraiek izango aurkezterik izango ez dutenak

> "Argi geratzen ari da ez doazela soilik ezker abertzalearen aurka"

-Ez dirudi ilegalizazioak konponbiderik ekarriko duenik...

Inola ere ez. Honen inguruan esan behar da hauteskundeak ematen direnean eta ikusten dudanean Euskal Herriaren izaera ukatzen duten alderdi espainolistek horrenbeste boto jasotzen dutela pena handia ematen didala. Zer egin ote diogu jende honi guri euskaldunak izaten ez uzteko? Zer gaitz edo zer kalte egin ote diogu jende honi? Gaizki tratatu ote ditugu? Guk euskaldunak izan nahi dugula eta ez espainol edo frantsesak uler ez dezaten. Benetan, ez dut ulertzen zer egin ote diegun, herriak hala nahiko balu, euskaldunak izaten utz ez diezaguten.

-Baina askok berehala aipatuko lukete borroka armatua.

Baina borroka armatua ukazio horren ondorioa baino ez da. Belaunaldiak eta belaunaldiak daramatzagu borrokan, galera eta samin ikaragarriarekin eta hori guztia berehala amaituko litzateke baldin eta, herriak horrela nahiko balu, euskaldun izateko eskubidea onartuko baligute, hainbat urtetako konfrontazioari bukaera emanez.

-Zein da gaur egun Ama Lurren egoera

Elkarteako kontu guztiak enbargatuta ditugu Garzonek hala erabakita. Gaur egun Audientzia Nazionalak kontu guztiak blokeaturik ditu eta ez digu berririk zabaltzen uzten. Momentuz bertan sartzerik badugu eta baita instalakuntzak erabili ere, baina bertan egindako inbertsio guztiak blokeatuta ditugu gaur egun.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 30 ☎943 72 27 80
URRETXU



Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia,5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

Santa Isab

EKAINAK 28, OSTIRALA

8:00.- Euskadi enparantzan ASTEKO AZOKA.
11:30.- "Sekundino Esnaola" Musika Eskolako TRIKITILARIEN kalejira.
19:00.- BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK herriko kaleetan zehar. Irteera: La Salle-Legazpi Ikastetxeko jolaslekua.
20:00.- KIMETS GOIARGI abesbatzaren emanaldia Mertzedariatar lekaimeen elizan.
22:00.- Bertsoak, hitza, musika eta txalaparta. Ostebi taldea, Bertso eskolako bertsolariak eta Txalapartariak. Lekua: Areizaga-Kalebarren plaza.
22:30.- Txosnak IREKITZEA eta ROCK KONTZERTUA "CICLONES" eta "KAOTIKO" taldeekin.
23:30.- ELKARTEEN ARTEKO XXXVII. DANBORRADA: Herriko elkarteez gainera koadrilek, Goiargi eta Kimets-Goiargi abesbatzek, Zumarragako Musika bandak eta Urolatarrak txarangak hartuko dute parte.
01:00.- DANTZALDIA TRAKETS taldearekin Euskadi enparantzan.
Goizeko 3ak arte: UROLATARRAK txarangarekin kalejira.

EKAINAK 29, LARUNBATA
KOADRILEI ESKAINITAKO EGUNA

11:30.- KOADRILAK ELKARTU eta bazkarirako mahaiak eta aulkiak muntatzen hasi Euskadi enparantzan.
11:30.- Zumarragako Musika Bandaren KALEJIRA.
12:00.- LUZ irratizaleek antolatuta, PLAZA ARKUPEDUNA AKTIBATZEA MONUMENTU HISTORIKOEN DIPLOMARAKO. (20ak arte). Itarte Etxean.
12:30.- Valentziako GRUP DE DANSES D'ALZIRA taldeari HARRERA. Ondoren, KALEJIRA. Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia.
13:00.- "Sekundino Esnaola" Musika Eskolako Orkestraren KONTZERTUA Zelai-Arizti Aretoan.
13:00.- POTEO HERRIKOIA txistulari eta trikitilariekin.
14:00.- KOADRILEN BAZKARIA Euskadi enparantzan.
16:30.- VII. MUS TXAPELKETA, Txoko eta Haizea tabernek antolatuta.
18:00.- DANTZA LIBRE TXAPELKETA Euskadi enparantzan, Zumardi Elkarteak antolatua. Euskal Herriko bikoterik onenek parte hartuko dute. Eguraldi txarra eginez gero, Zelai-Arizti Aretoan egingo da txapelketa.
19:30.- DANTZA ERAKUSKETA Euskadi enparantzan. Honako dantza-taldeok izango dira: Urretxuko LURRA, Valentziako GRUP DE DANSES D'ALZIRA eta Zumarraga-Urretxuko IRRINTZI. Eguraldi txarra eginez gero, Zelai-Arizti Aretoan egingo da jaialdia).
22:30.- HITZA, MUSIKA ETA IRUDIAK. Jose Luis Padrón eta zenbait idazle, Fits taldea eta Larraza. Lekua: Areizaga-Kalebarren plaza.
23:15.- SU ARTIFIZIALAK, CABALLER etxearen eskutik.
23:30.- SUZKO ZEZENA herriko kaleetan zehar.
23:30.- ROCK KONTZERTUA, "NARCO" taldearekin Zelai-Arizti pilotalekuan.
00:00.- "LARRAIN DANTZA" Euskadi enparantzan.
00:30.- DANTZALDIA "TARANTELLA" orkestrarekin Euskadi enparantzan.

UZTAILAK 2, ASTEARTEA, SANTA ISABEL EGUNA

8:00.- "Antzinako Ama" txistulari taldearen KALEJIRA.
9:00.- Santa Isabel Jaietako V. ARGAZKI RALLYA. Izen ematea: Udaletxeko arkupetan.
9:30.- Euskadi enparantzan elkartu eta herriko agintariak nahiz herritarrak Andre Maria Jasokundekoaren parroki elizara joango dira, herriko apaizekin batera Antioko Amaren elizara igotzeko.
11:00.- MEZA NAGUSIA. Hasieran, ohi den bezala, herriko dantzariek EZPATA DANTZA eskainiko diote Ama Birjinari. Ondoren berriz, elizaren inguruan prozesioa txistulari eta ezpata dantzariekin batera.
12:30.- AURRESKUA eliza aurreko zelaian.
13:00.- Bertsolariak (Joxe AGIRRE eta Imanol LAZKANO), Tolosako dulzainariak eta trikitilariak.
14:30.- HERRI BAZKARIA Antio inguruan bertsolari eta trikitilariek alaiturik.
17:30.- ERROMERIA txistulariekin (ANTZINAKO AMA taldea), Tolosako dultzainariekin eta soinujoleekin.
19:00.- Antioko Amari BEDERATZIURRENA eta ARROSARIOA.
20:30.- AGURRA eta ITZULERA agintariak eta ezpata dantzariak aurretik direla, eta txistulariak, dultzainariak eta trikitilariak soinu jotzen direla.
21:15.- KALEKO EZPATA DANTZA.
21:30.- ERROMERIA txistulari eta trikitilariek soinua jota Euskadi enparantzan.
21:30.- KALEJIRA ALDATZ GORA fanfarrearekin.



pelak 2002

EKAINAK 30, IGANDEA
UMEEI ESKAINITAKO EGUNA

7:30.- PONIAK ETA ADARDUNAK Euskadi enparantzan.
8:00.- LUZ irratizaleek antolatuta, PLAZA ARKUPEDUNA AKTIBATZEA MONUMENTU HISTORIKOEN DIPLOMARAKO. 12ak arte Itarte Etxean.
9:30.- KALEJIRA "Antzinako Ama" txistulari taldea soinua joz dela.
10:00.- Zumarragako VI. XAKE txapelketa Euskadi enparantzan.
10:00.- Galeperra E.A. elkarteak antolatuta bazkideentzako platerjotze lehiaketa Legazpiko tiro zelaian.
12:00.- Umeen eguneko festei hasiera emateko, Gabilondo Alkate jaunak ALKATE GAZTETXOARI AGINTARITZA EMATEA, eta pregoia irakurtzea.
12:30.- Irrintzi dantza taldearen DANTZA SAIOA eta UMEENTZAKO JOKOAK La Salle-Legazpi Ikastetxeko jolaslekuan.
13:00.- Trikitilariak Areizaga-Kalebarren plazan.
13:00.- Zumarragako Musika Bandaren KONTZERTUA Zelai-Arizti Aretoan.
13:00.- Trikitilariak Areizaga-Kalebarren plazan.
16:15.- Haurren Danborradan parte hartuko duten konpainia guztiak La Salle-Legazpi ikastetxeko jolastokian bilduko dira.
17:30.- HAURREN DANBORRADA, herriko eskola guztietako haurrak bertan direla, eta Zumarragako Musika bandaren, "Antzinako Ama" txistulari taldearen eta Urolatarrak txarangaren laguntzarekin.
18:00.- PILOTA PARTIDUAK Beloki pilotalekuan: TITIN III-GOÑI III / CAPELLAN-ELKORO.
19:30.- UROLATARRAK txarangarekin KALEJIRA
19:30.- EUSKODISKOrekin umeentzako DANTZALDIA, ustekabez betea, Euskadi enparantzan.
22:00.- Gorka Hermosaren folk musika emanaldia Areizaga-Kalebarren plazan.
23:00.- DANTZALDIA "NUEVO TALISMAN" orkestrarekin Euskadi enparantzan.

UZTAILAK 1, ASTELEHENA

13:00.- HERRI KIROL JAIALDIA Euskadi enparantzan. HARRIJASOTZAILEA: Aimar Irigoyen (15 urte). Marka berria jartzeko ahalegina 150 kiloko harriarekin.
AIZKOLARIAK: Peñagarikano eta Ugarteburu, Azurmendi eta Elorriagaren aurka.
13:00.- Trikitilariak Areizaga-Kalebarren plazan.
17:00.- GOITIBERA JAITSIERA. Ibilbidea: Arkaitzeta - Beloki hiribidea.
18:00.- IDI PROBAK. Partehartzaileak: Belarreta, Elorriaga, Urruzti eta Aizpuru.
18:30.- Ohi den bezala herriko agintariek, "Antzinako Ama" txistulari taldearekin batera, ANTIOKO AMARI BISITA egingo diote.
19:30.- Idi probetako SARIAK BANATZEA.
19:30.- Andre Maria Jasokundekoaren parroki elizan, Parrokiko abesbatzak abestuta, ESLAVAren SALBEA.
20:00.- AXERI TALDEAren antzerki emanaldia Areizaga-Kalebarren plazan.
22:00.- GOIARGI abesbatzaren emanaldia Zelai-Ariztin. Bere aurkezpenaren 20. urteurrenaren ospakizuna.
23:00.- DANTZALDIA "EGAN" Taldearekin Euskadi enparantzan.
23:30.- ROCK KONTZERTUA, "EL GITANO, LA CABRA Y LA TROMPETA" eta "SPEZIAL G<EST" taldeekin Zelai-Arizti pilotalekuan.

UZTAILAK 7, IGANDEA
JUBILATUEI ESKAINITAKO EGUNA

10:00.- Galeperra E.A. elkarteak antolatuta herri mailako PLATER TIRO LEHIAKETA Legazpiko tirol zelaian. "Bartolo Iturberen omenezko" sari berezia.
13:00.- ALBERO dantza taldearen erakusketa Zelai-Arizti Aretoan.
14:30.- Jubilatuen BAZKARIA. Bazkalostean, Zumarraga-Urretxuko GOIZALDE Jubilatuen Abesbatzaren saioa Alejandro Dominguezen zuzendaritzapean.
17:30.- EUSKODISKOrekin jubilatuentzako DANTZALDIA Euskadi enparantzan.

Euskarazko irakurketa eta komunikabideen erabilera zabaltzeko eta indartzeko kanpaina berezia

Urretxu eta Zumarragako udalen ekimenez sortua

-Harpidedun berriei zuzendua

-Urtebeterako harpidetza eginda, urte horretako harpidetza-kostuaren %25 udalek ordainduko dizute.

-Komunikabide bakoitzaren eskaintza bereziaz baliatzeko aukera

-Kalitatezko zerbitzuak

-Eskaintza bereziak

-Euskaldunon Egunkaria, Argia, Elhuyar, Hik Hasi, Bertsolari aldizkaria, HABE, Jakin, Ipurbeltz, BAT, Zabalik, Aizu, Irutxulo, Luma, Uztaro, Putz...

Argibide gehiago bi udaletako euskara zerbitzuetan.

Urretxuko Udala: 943038080 e-posta: euskera.ur@urretxu.net

Zumarragako Udala: 943729153 e-posta: euskera.zu@zumarraga.net

Aitor, hori da hori bihurri aurpegia duzuna! Gurekin behintzat txintxo ibili gero! Zorionak!

Alazne, hori da hori sustoa hartu duzuna! Aita horren itsusia al da? Zorionak!

Alberto, Ikastolan piper egin eta hondartzara joan al zara? Zorionak eta ondo ibili!

Alexander, gurasoak engainatzeko jartzen al duzu txintxo aurpegia? Zorionak!

Amaia, zapia buruan eta zapia lepoan, ez zara ez hoztuko gaurkoan! Zorionak!

Hona hemen Kilometroak festaren antolaketan dabilen lankide gazteena! Zorionak!

Ander, zuri ere Quemachoren mutilen inguruko istorioek buruko mina eragin al dizute?

Andoni, zorionak eta segi horren irrifartsu, benetan merezi du eta!

Andoni, majo zahartu zara denbora gutxian! Lunbagoak jota al zaude?

Arane, argazki txikia eman al digute ala zure burua al da txiki samarra? Zorionak!

Beñat, ea anaia pixka bat formaltzen duzun, Goñi II baino parrandazaleagoa da eta!

Bisi, zorionak zuri eta, bide batez, baita Goiargiko zure lagunei ere! Ondo ibili!

Casi, lepoa gehiago luzatuz gero zuhaitzetako hostoak jateko moduan izango zara!

Ekaitz, zure izenak dioen bezain zalapartatsua al zara? Zorionak eta ondo ibili!

Ester, horren barregarria al da behealde hortan erakutsi dizuten hori? Zorionak!

Floren, emaztea etxean kalean bezain saltsera al da? Zorionak eta ondo ibili!

Gorka, txintxo aurpegia utzi eta noizean behin bihurrikeriaren bat egizu! Zorionak!

Ibon kentzazu txamarra, bestela izerditan urtuko zara eta! Zorionak eta ondo ibili!

Imanol, PPkoek baino gehiagotan janzten duzu gorbata! Zorionak!

Iñake, hori da hori interesante aurpegia neska! Marbellako erregina izango zara...

Iñaki, ia-ia Luis XVIri egin ziotena egin dizugu, lepoa moztu alegia! Zorionak!

Iñaki, ez zara ba Leitzako Iñakiren aita izango? Zorionak eta ondo ibili!



Iñigo, jaterako orduan narrats samarra zarelako jarri al dizkizute lepoko horiek?



Iñigo, alaitu ezazu aurpegi hori motel, oporretan zaude eta! Zorionak eta ondo ibili!

Iraia, jakin al daiteke zer demontre egin dizugun? Zorionak eta ondo pasa!

Irati, hori da hori neska liraina eginda zaudena! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Itziar, pertsona ona dirudizun arren, herriko haurrak beldurtuta dituzu! Zorionak!

Jokin, ez ezazu lepoa gehiago luzatu, Naranjitoren laguna dirudizu eta! Zorionak!

Jon, alaitu ezazu aurpegia motel, konturatzerako oporrak bukatuko zaizkizu eta!

Jon, oraingoan ere bihurrikeriaren bat prestatzen ari al zara? Zorionak eta ondo pasa!

Jone, ez iezaguzu horrela begiratu, oraindik ez gara zurekin sartu eta! Zorionak!

Jone, kafe-tertulia gutxiago eta ea harpidedunen pegatinak jartzera etortzen zaren!

Jose Anjel, burua koipez igurtzi al duzu? Zure kaxkarraren distirak itsutuko gaitu!

Gustura asko dago **Jose Antonio**, alboan alabak laztan egiten diola! Zorionak!

Jose Inazio, ezin al diguzu tontakeria hauek idazten lagunduko digun zer edo zer eman?

Jose Manuel, kaxkarra erre zaizula konturatzen zarenean parre gutxiago egingo duzu!

Juan Mari, nabari da bai Agiñan ez duzuela fotomatonik! Zorionak!

Judit, Luisekin joan al zara parrokiako makina berrian belztera? Zorionak!

Julen, hori da hori bekoskoa! Zidane eta bere lagunak baino haserreago zaudela dirudi!

Laura, argi ibili zure inguruan dituzun bihurriekin! Zorionak eta ondo ibili!

Leire alferrik ezkutatuko zara, paparazziak toki guztietara heltzen dira eta!

Leire, "Operación Triunfo"ko Rosak baino estilo hobea duzu! Zorionak!



Luis, Zapatarekin ibili al zinen Mexikar iraultza egiten? Zorionak!

Luis, Zumarragako parrokian eguzkia hartzeko makina jarri al duzue?

Mabel, ea hurrengo ezkontzan txanpan gutxiago edaten duzun! Zorionak!

Mari Carmen, Shin Chan jar ezazue denda aurrean, modamodan dago eta! Zorionak!

Mari Carmen, zure "muñekoa" Jose Luis Morenori lapurtu al diozu? Zorionak!

Mari Jose, eguzkia aurrean dela ez da argazkirik atera behar! Zorionak!

Marian, iraila arte testu gehiago zuzendu behar ez dituzulako al zaude horren gustura?

Marta, hori da hori argazki kaxkarra utzi digutena... Zorionak eta ondo pasa!

Mikel, argi ibili albokoak zaplasteko bat eman nahi dizu eta! Zorionak eta ondo ibili!

Mohamed Attak **Mirari**ren ahoan hegazkin bat sartuko lukeela apostu egingo genuke.

Miren, hori da hori saltsera aurpegia duzuna! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!

Mirian alaitu ezazu aurpegi hori neska, oporretan zaude eta! Zorionak!

Naroa, hurrengoan horren argazki kaxkarra ekartzen badiguzu ez zaitugu zorionduko!

Ritxi, etxean denbora gehiago ematen ez baduzu emazteak alde egingo dizu eta semea Realekoa egingo zaizu! Zorionak **Itziar** eta **Markel** eta ondo pasa zuen urtebetetze egunak!

Argi ibili **Pia**rekin, emakume zorrotza dirudi eta! Zorionak eta ondo pasa!

Xabier, ez iezaguzu horren serio begiratu, oraindik ez gara zurekin sartu eta! Zorionak!

Azken tokia hitz egiten ikasten azkena izan denarentzat. Zorionak **Ainhoa**!

Realaren azken

Dirudienez, Realeko ikuskatzaileak sarritan izan ditugu Argixao zelaian azkenaldian. Izan ere, Urolako infantil taldean aritu diren Xabier Jorge eta Mikel Balenziaga Realarekin entrenatzeko eta txapelketak jokatzeko deitu dituzte. Azken txapelketa duela aste gutxi jokatu zuten Tuteran, Loren jokalari ohiaren agindupean. Dirudienez, herriko bi gazte hauek eman duten mailak Realeko arduradunak gustura utzi ditu eta datorren denboraldian talde txuri-urdinaren kadete B taldean jokatuko dute.

Zein postutan jokatzen duzue?

Xabier: Ni zentrala naiz. Atzelaria izateko nahiko azkarra naiz. Aurrelari bat markatzeko esaten badidate, partida osoa bere gainean ematen dut. Gehien atsegin dudan atzelaria Puyol da. Realetik, berriz, Xabi Alonso atsegin dut.

Mikel: Ni, berriz, aurrelaria naiz. Nahiko txikia naiz eta tekniko samarra ere banaizela uste dut. Iskin egitea gustukoa dut. Gehien atsegin dudan jokalaria De Pedro da. Izan ere, ni bezala, ezkertia da.

Ze ibilbide bete duzue orainarte?

Duela hiru urte, Urolaren txapelketa jokatu genuen eta Urolaren futbol eskolara joateko deitu ziguten. Lehenengo urtea futbol eskolan eman genuen, bigarrena gu baino zaharragoak ziren infantilekin eta azken hau ere infantiletan jokatu dugu, jada gure adinekoekin.

Urolan zer moduz aritu zarete?

Urolan oso gustura aritu gara eta asko ikasi dugu. Gainera, asteazkenetan gu baino zaharragoak direnekin entrenatu dugu. Astean beste egun batean, berriz, Gipuzkoako federazioarekin entrenatu dugu. Entrenamendu hauetan eskualdeko hainbat jokalari elkartzen ginen eta txapelketak ere jokatu ditugu. Duela gutxi Matigoxotegin txapelketa bat jokatu genuen Gipuzkoako gainontzeko eskualdeetako taldeen aurka eta lehenak gelditu ginen.

fitxaketak

Noiz jarri zen lehenengoz Reala zuekin harremanetan?

Mikel: Duela bi urte Realarekin entrenatzen izan nintzen bizpairu hilabetez, baina aukeraketa egin zutenean kanpoan gelditu nintzen.

Xabier: Otsailean, Calahorrara txapelketa bat jokatzera joateko zenbait laguni deitu ziguten. Hilabete inguru izan nintzen entrenatzen eta, ondoren, Calahorrara joan ginen txapelketa hura jokatzera. Beranduago berriro deitu zidaten, oraingoan Mikelekin batera. Handik astebetera edo, datorren denboraldian kadete B taldean arituko garela esan ziguten Realeko arduradunek.

Zenbat partida jokatu dituzue Realeko elastikoarekin?

Mikel: Duela hiru urte dexente jokatu nituen. Aurten, berriz, lau jokatu ditut.

Xabier: Nik, berriz, 8 bat jokatu ditut aurten. Calahorran partida guztiak jokatu nituen eta Tuteran, berriz, bai Mikelek eta bai nik hiru partida jokatu ditugu.

Zer moduz joan zen Tuterako txapelketa?

Osasunaren aurkako partida berdindu egin genuen, Zaragozaren aurkakoa berdindu egin genuen eta Real Madrilen aurka galdu egin genuen. Tuterako taldearen aurka irabazi ondoren, hirugarren postua eskuratu genuen.

> Ikasketekin eta futbolean ondo aritzen bagara, seguraski Realean jarraituko dugu

Datorren denboraldi osoa Realean emango duzuela jakitearekin batera poz handia hartuko zenuten...

Bai. Urolakoek zorionak eman dizkigute eta etxean ere oso gustura daude, nahiz eta ikasketengatik kezkatuta dauden. Dena den, Reala ere gure ikasketez kezkatzen da. Realekoek ikasketetan lortzen ditugun emaitzen jarraipena egiten dute eta ikasketak alde batera uzten baditugu, Realetik bidaliko gaituztela esan digute.

Herrian jarraitu behar al duzue ikasten?

Bai. Entrenamenduak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango ditugu. Zubietara joateko, Realak herri ezberdinetako jokalariak jasotzen dituen autobusa jartzen du.

Alde handia al dago Urola eta Realaren artean?

Orainarte oso gustura gabiltza, baina hasieran konfidantza hartu beharra dago. Bestalde, Realarekin gogorrago jokatu beharra dago, aurkariek presio handiagoa egiten baitute. Entrenamenduak ere ezberdinak dira, Realean gogorragoak baitira. Asko ikasiko dugula uste dugu.

Eta datorren denboraldian zer egitea espero duzue?

Jokatzen jarraitzea eta ikastea. Datorren urtean DBHko 3. maila egingo dugu, baina ez dugu uste ikasketekin arazorik izango dugunik. Ikasketetan eta futbolean ondo aritzen bagara, seguraski Realean jarraituko dugu.

ETXABURU
merenda-lekua

Santa Barbara bidea ☎ 943 72 22 77
URRETXU

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Herri Aldizkaria Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 72 57 75 telefonora.
Merkea eta ona!

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA

Amparo Arrizabalaga

Jende askok zumarratarra dela uste badu ere, Amparo Urretxun jaio zen. Bere bizitzako urte asko mojekin eman zituen: lehenengo herrian ikasten, ondoren Larraurin eta, azkenik, Iruñean. Ikasketak amaitu ondoren ere, mojekin jarraitu zuen: Madril, Bilbo eta Gasteizko ospitaletan mojekin batera lanean aritu zen. Halako batean, bere aitak, batere ez zuela aurrezten eta etxera itzultzeko esan zion. Herrian, Elena Arbulu lehengusuaren farmazian lanean hasi zen.

Herrira itzuli zenean, lagun batek Santa Isabeletako bazkarira bere mutil-lagunaren lagun batekin igotzea proposatu zion. Urte pare bat beranduago, mutil harekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan dituzte.

Duela 23 urte, Amparok eta La Salleko ikasle ohien elkarteko lagunek Oargik utzitako lekukoa hartu zuten eta danborrada eta errege kabalgata antolatzen hasi ziren. Amparo, lan honi esker dugu ezaguna batez ere bi herriotan. "Danborrada antolatzeak lan handia ematen du, baina, aldi berean, oso pozgarria da. Urtero jantziak prestatu behar dira, abesti berriak prestatu... Aurten, adibidez, Donostiako Martxa eta Polka joko ditugu lehenengoz.

Danborrada antolatzeaz gain, haurrak asko atsegin dituenez, duela 16 urte La Sallen ludoteka bat prestatzea erabaki zuen. "Drogen inguruko hitzaldi batzuk izan ziren eta, haien ondoren, drogomenpekotasunen prebentzioa bultzatzeko zer edo zer egitea erabaki genuen".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dut gogoratzen, baina beranduago moja izateko zorian izan nintzen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Haurrentzako ekitaldiak antolatzea, haurrak asko atsegin baititut.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxuarra naizenez, Urretxu. Dena den, Zumarragan oso gustura bizi naiz.

-Lehengo haurrak ala oraingoak?

Ezberdinak dira. Oraingoek lehengokoak baino lehenago uste dute heldu direla. Lehen hezkuntzatik DBHra pasatzen direnean, sekulakoak direla uste dute.

-Helduen danborrada ala haurrena?

Haurrena politagoa dela uste dut.

-Zumarragako danborrada ala Donostiakoa?

Ez dago konparatzerik, Zumarragakoa noski!

-San Miguel ala Santa Isabel?

Ez dago konparatzerik, Amabirjiña garagardoa baino garrantzitsuagoa dela uste dut. Dena den, garagardoa edateko orduan, San Miguela, noski!

-Bi semeetatik zeinek zikindu ditu kamiseta gehiago?

Biek antzera, jakizu zenbat kamiseta garbitu ditudan honezkero!

-Eskubaloia ala areto futbola?

Eskubaloia nahiago dut, nahiz eta Jorge haserratu egingo zaidan hau esateagatik.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Gainontzeko guztia nolakoa duenaren arabera.

-Egindako azken oparia?

Eli Agirreri oparitu nizkion zapatak.

-Eta jasotakoa?

Eli Agirrek berak eta David Parrak oparitu zidaten konjuntoa.

-Data bat?

Ez dut data bat bereziki gogoratzen.

-Neska eta mutil izen bana?

Aitor eta Sara.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Kalezalea naiz telebistazalea baino gehiago. Telebistan filmeak soilik atsegin ditut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano.

-Liburu bat?

Ez naiz irakurzalea.

-Filme bat?

Sidney Poitier-en guztiak. Dirua banu, bera bisitatzera joango nintzateke.

-Gustuko abestia?

"Yolanda" asko atsegin dut, oroitzapen onak ekartzen baitizkit.

-Soinu bat?

Guztiak atsegin ditut.

-Usain bat?

Larrosarena eta krabelinarena.

-Janari bat?

Txipiroiak.

-Ura ala...

Ura.

Santa Isabelak 2002

Girorik onena gurean aurkituko duzu!









Politena taberna

kakueta kafe

ARKUPE TABERNA

TINO
kafetegia

ARRUABARRENA
KAFETEGIA
GOZOTEGIA

Hirukia
Taberna



Urretxuko giroa!!

Urretxuko Tabernariak

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba
Avenida • Buhame • Malkor • Eire
Aldiri, k.e. • Fers • Aldapa

Ondo pasa Santa Isabelak!